

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Sailkatutako jarduera baimenaren espedientea. Jendaurrean jartzea

Urruela SC enpresak jarduera sailkatuaren baimena eskatu dio udal honi gaztagintzan jarduteko Arespalditzako 3 poligonoko 407 lurzatian.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babestearen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak 58.1.2 artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, ezarri nahi den jarduerak nolabait kalte egiten diela uste dutenek egoki jotzen dituzten oharrak aurkeztu ahal izateko udal idazkaritzan.

Arespalditza, 2019ko abuztuaren 29a

Jarduneko alkatea
IÑIGO PINEDO VADILLO